

1. IDEIA

Asmakizun hau, EKO GYM da, izena ezaten duen bezala, energia berriztagarria sortzen duen gimnasio bat da, non jendea, ariketa fisikoa egiterakoan, ingurumenari laguntzen dio. Izan ere, azken urteetan naturari oso modu negatiboan eragin diogu, klima-aldaketa sortuz. Horregatik, gimnasio honetan, hainbat erreforma egingo ditugu makinerian, norbaitek ariketa fisikoa egiten duen bakoitzean, energia jasangarria sor dadin

Lehen aipatu dugun bezala, ideia hau gauzatzeko, eraberrituko genukeen gimnasioan, bizikleta elektrikoa, korrika egiteko makinak eta gainerakoak eraikinaren sistema elektrikora konektatuko ditugu, erabiltzen diren bakoitzean energia jasangarria sor dezaten.

Gimnasio honen ezaugarrien artean, energia sortzen duten makinaren erabilera ez ezik, eguzki-panelen erabilera ere badago; izan ere, energia erregaien erabilera gehienbat murriztu nahi dugu, ingurumena kaltetzeko arrazoi nagusietako bat izan ohi direlako.

